

2020ko lehen hiruhilekoan 908 ezkontza izan ziren, urtebete lehenago baino % 10,5 gutxiago

Martxoan % 56,2 jaitsi ziren ezkontzak

Euskal AEn 908 ezkontza izan ziren 2020ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berean (1.015) baino % 10,5 gutxiago, Eustaten datuen arabera. 29 ezkontza homosexual izan ziren: 10, gizon artean; 19, emakume artean. Gainerako 879 ezkontzak heterosexualak izan ziren.

Urteko lehen hiruhilekoan ezkontza gutxi egiten dira, batez ere urtarrilean eta otsailean, baina aurten nabarmendu behar da urtarrilean % 45,8 ezkontza gehiago egin zirela 2019an baino, eta otsailean % 23,8 gehiago; martxoan, aldiz, % 56,2 jaitsi ziren ezkontzak.

Urtarrilean eta otsailean izandako hazkunderen zioa, 2019ko hilabete berberen aldean, izan daiteke, neurri batean, ezen aurten ostiral bat gehiago izan dela urtarrilean eta larunbat bat gehiago otsailean, zeren ezkontzak egun horietan pilatzen baitira (% 58,7 eta % 21,7, hurrenez hurren). Aldiz, martxoko jaitsiera COVID-19aren pandemiarekin lotu behar da hein handi batean.

Ohikoa denez, hiruhileko horretan ezkontza zibilen proportzioa handia izan zen, ezkontza heterosexualen % 94,3, eta, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak batuta (guztiak zibilak direnak), guztizko ehunekoa % 97,5era igo zen.

2020ko lehen hiruhilekoko 908 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 860 gizon eta 883 emakume ezkondu ziren; gainerako ezkontzideak erkidegotik kanpo bizi ziren. 678 senarrentzat (% 78,8) horixe izan zen lehen ezkontza; 7 alargun eta 175 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Lehenengo aldiz ezkonduak emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa izan zen, ezkongabeak 718 izan baitziren (% 81,3); alargunak 4 izan ziren, eta dibortziatuak 161.

Adinari behatuz, senarren artean % 90,1ek zituzten 30 urte edo gehiago; emazteen artean, % 82,9k. Aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, proportzioak behera egin du, bai gizonen kasuan (% 90,7), bai emakumeen kasuan (% 87,7).

Ehuneko 8,9 puntuz hazi da atzerriko emazteen ehunekoa


2020ko lehen hiruhilekoan emakume ezkonberrien % 29,9 eta gizon ezkonberrien % 20,5 atzerritarrak ziren. Ehuneko horrek gora egin du 2019ko aldi berarekin alderatuta, bai emazteen kasuan, bai gizonenean, noiz % 21 eta % 15,7 izan baitziren, hurrenez hurren.

Euskal AEko ezkontzak egoitzako lurralde, sexu, aurreko egoera zibil, eta ospatzeko moduaren arabera (1)

	Trimestre actual 2020/I		Aurreko hiruhilekoa (2019/IV)		Aurreko urteko hiruh. bera (2019/I)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	908	100,0	1.672	100,0	1.015	100,0
Araba / Álava	144	15,9	227	13,6	135	13,3
Bizkaia	407	44,8	809	48,4	498	49,1
Gipuzkoa	325	35,8	534	31,9	332	32,7
Euskal AEtik kanpo	32	3,5	102	6,1	50	4,9
<u>Homosexualak</u>	29	3,2	45	2,7	38	3,7
Gizon artean	10	1,1	15	0,9	12	1,2
Emakume artean	19	2,1	30	1,8	26	2,6
<u>Heterosexualak</u>	879	96,8	1.627	97,3	977	96,3
Kanonikoak	23	2,5	160	9,6	50	4,9
Zibilak	856	94,3	1.467	87,7	927	91,3
SENARGAIAK	860	100,0	1.573	100,0	944	100,0
Ezkongabeak	678	78,8	1.302	82,8	754	79,9
Alargunak	7	0,8	18	1,1	17	1,8
Dibortziatuak	175	20,3	253	16,1	173	18,3
< 30 urte	85	9,9	143	9,1	88	9,3
30 - 39 urte	321	37,3	706	44,9	404	42,8
≥ 40 urte	454	52,8	724	46,0	452	47,9
Espainiarrak	684	79,5	1.366	86,8	796	84,3
Atzerritarrak	176	20,5	207	13,2	148	15,7
EMAZTEGAIK	883	100,0	1.600	100,0	959	100,0
Ezkongabeak	718	81,3	1.312	82,0	771	80,4
Alargunak	4	0,5	18	1,1	7	0,7
Dibortziatuak	161	18,2	270	16,9	181	18,9
< 30 urte	151	17,1	249	15,8	131	13,9
30 - 39 urte	354	40,1	737	46,9	457	48,4
≥ 40 urte	378	42,8	614	39,0	371	39,3
Espainiarrak	619	70,1	1.272	80,9	761	80,6
Atzerritarrak	264	29,9	328	20,9	198	21,0

(1) Oraingo eta aurreko hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira
 Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Bizilekua Euskal AEn dutenen ezkontzak.



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62